




UDARREGI IKASTOLA, I.K.E.
Gernika Ibilbidea, 11
20170 - USURBIL

www.udarregi.eus
usurbil@ikastola.eus



2021-2022 IKASTURTEA





UDARREGI IKASTOLA, I.K.E.
Gernika Ibilbidea, 11
20170 - USURBIL

www.udarregi.eus
usurbil@ikastola.eus

Usurbilen, 2021eko uztailaren 9an

Familia agurgarria!

Irailean, 2021-2022 ikasturte berriari hasiera emango diogu, eta garrantzitsuak izango diren zenbait ohar helarazi nahi dizuet.

Bertan aurkituko duzuen informazioa, oinarriko antolaketari dagokiona da, eta Hezkuntza Sailetik bidali diguten COVID 19 Protokoloan aurreikusitako hainbat neurriren malgutasuna aintzat hartu dugu etapa bakoitzeko antolaketa finkatzerakoan.

Zuzendaritza Taldeak abuztuaren azken astean egingo duen bileran, aztertuko du uneko egoera eta beharrezko erabakiak hartuko ditu; beharko balitz, erabakien komunikazioa helaraziko lizueke, zuen etxeko antolaketari ekin ahal izateko.

Azkenik, lerro hauek aprobetxatu nahi ditut, nire agurra helarazteko.

...Usurbilgo udarregi ikastolan, zuekin guztiekin batera ikastolan hezten eta hazten laguntzen, 43 urtez aritzeko zortea eta plazerra izan dut!

Familia eta pertsona ugari, eta anitzak ezagutzeko aukera eman didate usurbilek eta udarregik... Eta nik... Esker oneko hitzak, besterik ez ditut, ibilbide luze honetan ikastola kide izan zaituztet denentzat.

Ohorea izan da!

Beraz, bihotz, bihotzez, jaso ezazue nire agurrik zintzoena! Onena opa dizuet!

Ondo segi eta gozatu udaldiaz!

Ez adiorik!

Mariaje

EGUTEGIA ETA ORDUTEGIAK

	2021/2022 IKASTURTEAREN SARRERA EGUNAK	ORDUTEGIA
HH/LH	HASIERA: Irailaren 7an	9:00-12:30
	Irailaren 7tik 24ra (biak barne)	9:00-12:30
	Irailaren 27tik ekainaren 3ra (biak barne)	9:00-12:30 eta 14:30-16:30
	Ekainaren 6tik 21era	9:00-12:30
DBH	HASIERA: Irailaren 6an (Aurkezpena)	11:00
	Irailaren 7tik 30era (biak barne)	8:25-12:30 / 14:30-16:30
	Ekainaren 1etik 10ra (biak barne)	8:25-12:30 / 14:30-16:30
	Ekainaren 13tik 21era (biak barne)	8:25-12:30
	Ikasturte osoan, ASTEAZKEN ETA OSTIRALETAN LANALDI JARRAITUA	8:25-14:30
	OHARRAK: DBH_KO IKASLEAK: ☆ Irailaren 6an DBH_KO ikasleekin egiten den aurkezpena goizeko 11:00etatik hasita egingo da. Ikastolara bertaratzea norberaren gain geratuko da. Egun horretan autobus zerbitzurik ez da egongo.	

OPORRAK ETA JAI- EGUNAK			
HH/LH/ DBH	Oporrak	Negukoak	☆ Abenduaren 21 eguerditik urtarrilaren 9ra (igande) ☆ 10ean klaseak hasi.
		Udaberrikoak	☆ Apirilaren 8 eguerditik apirilaren 24ra arte (igande) ☆ Apirilaren 25ean klaseak hasi.
		Udakoak	Ekainaren 21 eguerditik aurrera.
	Jai egunak	Urriaren 12	Pilare ama birjina
		Azaroaren 1	Domu Santu Eguna
		Abenduaren 3 Abenduaren 6 *** Abenduaren 8	☆ Euskararen Eguna ☆ Espainiako Konstituzio Eguna *** ☆ Sortzez Garbia
		Urtarrilaren 20	Donostia Eguna
		Otsailaren 28 eta Martxoaren 1	Inauteriak
	1. *** Euskal Egutegia aldarrikatzeko Ikastola irekita egongo da. 2. Hiruhilekoen azken egunean saioak eguerdian amaituko dira.		

EGUTEGIA HH-LH							2021-2022							
IRAILA							URRIA							
			1	2	3	4	5				1	2	3	
6	7	8	9	10	11	12	4	5	6	7	8	9	10	
13	14	15	16	17	18	19	11	12	13	14	15	16	17	
20	21	22	23	24	25	26	18	19	20	21	22	23	24	
27	28	29	30				25	26	27	28	29	30	31	
AZAROA							ABENDUA							
1	2	3	4	5	6	7			1	2	3	4	5	
8	9	10	11	12	13	14	6	7	8	9	10	11	12	
15	16	17	18	19	20	21	13	14	15	16	17	18	19	
22	23	24	25	26	27	28	20	/	22	23	24	25	26	
29	30						27	28	29	30	31			
URTARRILA							OTSAILA							
						1	2		1	2	3	4	5	6
3	4	5	6	7	8	9	7	8	9	10	11	12	13	
10	11	12	13	14	15	16	14	15	16	17	18	19	20	
17	18	19	20	21	22	23	21	22	23	24	25	26	27	
24	25	26	27	28	29	30	28							
31														
MARTXOA							APIRILA							
	1	2	3	4	5	6				1	2	3		
7	8	9	10	11	12	13	4	5	6	7	/	9	10	
14	15	16	17	18	19	20	11	12	13	14	15	16	17	
21	22	23	24	25	26	27	18	19	20	21	22	23	24	
28	29	30	31				25	26	27	28	29	30		
MAIATZA							EKAINA							
						1			1	2	3	4	5	
2	3	4	5	6	7	8	6	7	8	9	10	11	12	
9	10	11	12	13	14	15	13	14	15	16	17	18	19	
16	17	18	19	20	21	22	20	/	22	23	24	25	26	
23	24	25	26	27	28	29	27	28	29	30				
30	31													

EGUTEGIA DBH							2021-2022						
IRAILA							URRIA						
			1	2	3	4	5				1	2	3
6	7	8	9	10	11	12	4	5	6	7	8	9	10
13	14	15	16	17	18	19	11	12	13	14	15	16	17
20	21	22	23	24	25	26	18	19	20	21	22	23	24
27	28	29	30				25	26	27	28	29	30	31
AZAROA							ABENDUA						
1	2	3	4	5	6	7			1	2	3	4	5
8	9	10	11	12	13	14	6	7	8	9	10	11	12
15	16	17	18	19	20	21	13	14	15	16	17	18	19
22	23	24	25	26	27	28	20	/	22	23	24	25	26
29	30						27	28	29	30	31		
URTARRILA							OTSAILA						
					1	2		1	2	3	4	5	6
3	4	5	6	7	8	9	7	8	9	10	11	12	13
10	11	12	13	14	15	16	14	15	16	17	18	19	20
17	18	19	20	21	22	23	21	22	23	24	25	26	27
24	25	26	27	28	29	30	28						
31													
MARTXOA							APIRILA						
	1	2	3	4	5	6				1	2	3	
7	8	9	10	11	12	13	4	5	6	7	/	9	10
14	15	16	17	18	19	20	11	12	13	14	15	16	17
21	22	23	24	25	26	27	18	19	20	21	22	23	24
28	29	30	31				25	26	27	28	29	30	
MAIATZA							EKAINA						
						1			1	2	3	4	5
2	3	4	5	6	7	8	6	7	8	9	10	11	12
9	10	11	12	13	14	15	13	14	15	16	17	18	19
16	17	18	19	20	21	22	20	/	22	23	24	25	26
23	24	25	26	27	28	29	27	28	29	30			
30	31												



EROSKETA

- ★ **2010- 2011 ikasturtean**, Hitz Aho guraso elkarteak LIBURUTRUK izeneko egitasmoa abiatu zuen. Honen helburua da: liburuak berrerabiltzeko sisteman parte hartu nahi duten familiei, horretarako aukera ematea.
- ★ **2020-2021 ean LH4. mailan egon** diren ikasleek parte hartu ahal izango dute.
- ★ **Egitasmoan parte hartu ez duten familiek** liburuen erosketa beren ohiko moduan egin ahalko dute.
- ★ **OHARRA: LIBURUTRUK** egitasmoan parte hartzen ez duten familiek, hala nahi izanez gero eta ohikoa izan denez, liburuak salgai izango dituzte herriko LAUROK eta LIZARDI liburu-dendetan.

IKASTALDEEN KOKAPENA ESPAZIO EZBERDINETAN

HE 0-3

HAUR ESKOLA ERAIKINA: UGARTE KALEA 9, KALEZAR

Beheko solairuan	<ul style="list-style-type: none"> • Jangela • Psikomotrizitate gela
Kanpo espazioa	<ul style="list-style-type: none"> • Sarrerako patioa • Belardia
1.go solairuan	<ul style="list-style-type: none"> • 0-1 adineko gela • Sehaska gela • 1-2 adineko gela bat • Esperimentazio gela
Goiko solairuan	<ul style="list-style-type: none"> • 1-2 adineko gela bat • 2-3 adineko 2 gela • Bulegoa (idazkaritza) • Biltegia • Garbiketa gela

HH 3-4-5

ALPERRO- BURU 5, HH_ERAIKIN BERRIA_AGERI ALDE ERAIKINA

Atarian	<ul style="list-style-type: none"> • HH3ko gela • HH4ko gela • Jolaslekua
Beheko solairuan	<ul style="list-style-type: none"> • Jangela
1. solairuan	<ul style="list-style-type: none"> • HH5eko gela, • Psikomotrizitate gela • Musika gela.

LH 1-2-3-4-5-6

ALPERRO- BURU 5, LH_AGERI- ALDE ERAIKINA

Atarian	<ul style="list-style-type: none"> • Goizeko Zaintza gela
1. solairuan	<ul style="list-style-type: none"> • Plastika gela • Musika gela • Laborategia
2. solairuan	<ul style="list-style-type: none"> • LH 1-2-3
3. solairuan	<ul style="list-style-type: none"> • LH 4-5-6 • Orientazio gela

DBH 1-2-3-4

GERNIKA IBILBIDEA 11, DBH ERAIKINA

MAILA	TUTOREAK	GELA-KOKAPENAK
DBH 1A DBH 1B	Mertxe Loiola	<p>Ikas-geletako kokapena iraileko antolaketaren baitan zehaztuko da.</p>
	Begoña Eizagirre	
	Izaskun de Miguel (partekatua)	
DBH 2A DBH 2B DBH 2D	Garbiñe Zaldua	
	Jon Larrañaga	
	Yolanda Inziarte (partekatua)	
DBH 3A DBH 3B	Olatz Martin	
	Natali Izagirre	
DBH 4A DBH 4B	Eñaut Agirre	
	Amaia Añorga	
	Ander Izeta (partekatua)	

TUTORETZAK

HEZKUNTZA ETAPAK	ADINA/MAILA	TUTOREAK ETA ARLOETAKO IRAKASLEAK
HAUR HEZKUNTZA (0-6 urte)	0-3	HAUR ESKOLAKO IRAKASLE ETA HEZITZAILE TALDEA
		0-1 Josune TAPIA Zehaztu gabeko hezitzaile laguntzailea
		1-2 (2 gela) Maialen LEGARREA Silvia URIGOITIA Amaia RODA Zehaztu gabeko hezitzaile laguntzailea
		2-3 (2 gela) Lis GURRUTXAGA Nerea LASA Maidar OLLOKIEGI (Koodinatzailea) Zehaztu gabeko hezitzaile laguntzailea
	HH3 (3 urte)	Alazne BEGIRISTAIN Olatz ANSA Nekane ALDUNTZIN (irakasle laguntzailea)
	HH4 (4 urte)	Oihana AIERTZA Eider TAPIA Eneritz AGIRRE (irakasle laguntzailea)
	HH5 (5 urte)	Ainhoa SALSAMENDI Haizea ETXEZARRETA
	Musika	Miren Jaione ESKUDERO
	Ingelesa	Ainara MENDIZABAL Naiara AGIRREZABALAGA
	LEHEN HEZKUNTZA (6-12 urte)	LH 1.
LH 2.		Eli EIZAGIRRE Nekane GARMENDIA
LH 3.		Ainhoa AIZPURUA Izaro ASTEASUINZARRA
LH 4.		Ana SAGARDIA Ainhoa ITURZAETA
LH 5.		Iñaxio UNANUE Ibon AZKONOBETA Nekane GUERRERO
LH 6.		Larraitz OÑATIBIA Ekaitz GARBIZU
Ingelesa		Ainhoa ITURTZAETA Naiara AGIRREZABALAGA Aloña MENDIZABAL Ainara MENDIZABAL
Musika		Jaione ESKUDERO
Gorputz Hezkuntza		Ekaitz GARBIZU Elhuiar URDANPILLETA Iñaxio UNANUE
Arte Hezkuntza LH 4-5-6		Naiara AGIRREZABALAGA
IKT	Jose Ramon OIARBIDE	

	Orientazio departamendua	Nadeth AGIRRE (Eli Goikoetxearen ordezkoi) Idoia LEKUONA Arantza Cotado (Ane Mendizabalen ordezkoi)
--	---------------------------------	-----------------------------------------------------------------------------------------------------------

DERRIGORREZKO BIGAREN HEZKUNTZA (12-16 URTE)	DBH 1.	Mertxe LOIOLA Begoña EIZAGIRRE Izaskun DE MIGUEL (tutoretza partekatua)
	DBH 2.	Garbiñe ZALDUA Jon LARRAÑAGA Yolanda INZIARTE (tutoretza partekatua)
	DBH 3.	Olatz MARTIN Natali IZAGIRRE
	DBH 4.	Eñaut LASARTE Amaia AÑORGA Ander IZETA (tutoretza partekatua)

ANTOLAKETA PEDAGOGIKOARI BURUZKO OHARRAK

HAUR ESKOLAKO KUDEAKETA UDARREGI IKASTOLAREN BAITAN

- ★ **Dakizueenez, 2008-2009** ikasturtean, Usurbilen hasiera eman zitzaion ibilbide berri bati: Udarregi Ikastola Udalak 0-3 Hezkuntza Proiektua garatzeko atera zuen esleipenera aurkeztuz, ordura arte Usurbilen lanean jardundako Haur Eskola, Ikastolaren kudeaketaren baitan geratuz.
- ★ **Udarregin 2008ko ekainean** egin zen Ezohiko Batzarrean argi berdea eman zitzaion esleipenera aurkezteari eta irailetik aurrera ordura arte Udarregin kokatuak zeuden HH2ko gelak Kale zaharrera pasa ziren, Haur Eskolak zerabilen eraikinera.
- ★ **Haur Eskolaren 0-3 hezkuntza tartea eta Udarregiren HH2ko gela eskaintzaren bateratzea**, uztartze sakonago baterako abiapuntua izan zedin nahi genuela aitortu genuen orduko negoziaketetan eta asmo horretan baieztatzen gara gaur egun ere.
- ★ **Bere garaian hartutako erabakiak** Ikastolari aukera eman dio 13 urtetan zehar, Usurbilen bertan, 0-16 bitarteko adinetako ikasleei eta familiei Hezkuntza eskaintza zabaltzeko eta garatzeko.
- ★ **Antolaketa** aldetik, garaian garaiko beharren eraginez, birmoldaketa ezberdinak gauzatzen aritu gara, eta aurten, 2021ean, Esleipenaren amaierarekin batera, ikastola aurkeztu zen, Udalak bigarren aldiz atera duen Esleipenera.
- ★ **Esleipena Udarregi ikastolak eskuratu** du, eta esleipeneko baldintza eta ezaugarrietan aurkeztuta bezala, 3 ikasturte + 2 (luzatzeko aukera), hau da 5 urtez gehienez, kudeatuko du Udarregi Ikastolak Usurbilgo Haur Eskola.

HEZKUNTZA SAILA: GELA-PLANIFIKAZIOA ETA ITUNAK 2021-2022

Jarraian 2021-2022 ikasturterako Udarregi Ikastolak eskatutako gela-itunak eta Hezkuntza Sailak erantzuna:

	UDARREGIK eskaturiko gela kopurua	HEZKUNTZA SAILAK onarturiko gela kopurua
HH	6	6
LH	13	13
Heziketa Berezia LH ***	1	?
DBH 1.ZIKLOA	5	5
DBH 2. ZIKLOA	4	4
Heziketa Berezia DBH	2	?

OHARRA:

*** **Heziketa Bereziko gelei** dagokienean, 2021-2022 ikasturteko premia berezietako gela-kopuruen onarpen- ebazpena oraindik ateratzeko dago, arrazoi honengatik oraindik ezin dugu esan aurreikusitako kopurua onartu zaigun.

2021-2022. LANGILERIAREN ORGANIGRAMARI OHARRAK:

- ★ **2021-2022an etapetako antolaketa** gauzatzekoan, ohikoa den moduan, ikastolan indarrean dauden kontratu motak, baldintzak, eta lanaren ezaugarriak kontuan hartu ditugu.
- ★ **Joan etorriko garaiak** bizitzen ari garen honetan, berrantolatutako behar izan ditugu hainbat lanpostu. Aldaketa esanguratsuenak, taula honetan laburbildu ditugu:

HH	<ul style="list-style-type: none"> ★ Haur Eskola 0-3: 2008ko esleipenez geroztik, Haur Eskolan lanean jardun duten, Ainhoa Aranzabalek eta Edurne Urdanpilletak ez dute Haur Eskolan segituko. Lan-ibilbide berri bati helduko diote hemendik aurrera, Udarregitik at.
LH	<ul style="list-style-type: none"> ★ Orientazio Departamendua: Nadeth Agirre, Eli Goikoetxearen ordezkotza beteko du.
DBH	<ul style="list-style-type: none"> ★ Pedagogia Terapeutikoko irakasle: Arantza Cotado izango da, etapa honetan bere lanaldiaren zati bat betez. ★ Ingelesa, Gizarte ingelesez eta Baloak arloak, Natali Izagirrek (irakasle berria) emango ditu. ★ Izaskun de Miguelek Gizarte, Ingelera eta Baloak arloak emango ditu.
ZT (Zuzendaritza Taldea)	<ul style="list-style-type: none"> ★ Zuzendaria: Nerea Erauntzetamurgil izango da, Mariaje Imazen errelebu hartuz zuzendari lanetan. ★ DBHko Ikasketa Burutza: Unai Lataillade, orain arte Nerea Erauntzetamurgilek bete duen kargua bere gain hartuz.

DBH: EKAINEKO ARLOETAKO ERREKUPERAKETAK

- ★ **Ikasturte bukaerako berreskuratze azterketetarako** egiten den antolaketaren berri, 2021-2022 ikasturtearen hirugarren hiru hilabeteen emango zaizue.
- ★ **Antolaketa honetarako kontuan hartuko** dira aurtengo prozesuan identifikatutako hobekuntza arloak eta hauexek ezartzeko aurreikusitako prozedurak indarrean jarriko dira.

ZERBITZUAK

GOIZEKO ZAINZA (08:00etatik 09:00etara)

- ★ **Zerbitzua** aurreko ikasturtean antolatutako eran jarraituko da eskaintzen 2021-2022an ere.
- ★ **Lekua eta ordua:** Ageri Aldeko eraikina, goizeko 08:00etatik 9:00etara.
- ★ **Hiru begirale** egongo dira.
- ★ **2021-2022 ikaturteko salneurria 20 €** hileko izango da.



ARRATSALDEKO ZAINZA (14:30etik 16:30era)

- ★ **Irailean zehar** klaseak goizetik direnean. 2022ko ekainean eskainiko da ere bai, gutxieneko taldea sortu ezker.
- ★ **Lekua eta ordua:** Ageri Aldeko eraikina, irailak 7tik 24ra arratsaldeko 14:30etik 16:30era.
- ★ **Begiraleak ikasle kopuruaren arabera izango da.**
- ★ **Zerbitzuaren salneurria** oraindik zehazteko dago eta erabiltzaile kopuruaren arabera kalkulatzen da. 2020-2021ean 56€ izan da.

JANGELA

- ★ **2021-2022 ikasturteko kontratua, AIBAK Enpresarekin** mantendu da.
- ★ **Bertan sukaldatutako menuak** zerbitzatzin jarraituko dugu.
- ★ **Bi txandatan** jango dute bazkaldarrek.
- ★ **Hasiera eguna:** irailaren 7a.
- ★ **Interesatuok abuztuaren azken astean idazkaritzara hots egin** ezazue, izen-deiturak emateko eta baiesteko. **Gogoratu, urtero eman behar** dela izena, nahiz eta aurreko ikasturtean ere jangelako erabiltzaile izan.
- ★ **2020-2021ean menu bakoitzeko** prezioa **7,35 €** izan da.
- ★ **Urritik maiztera bitartean prezio desberdinak** egongo dira, ikasle bakoitzaren beharren arabera. **Behin tarifa bat aukeratu ezker**, ezin izango da kurtsoan zehar aldaketarik eskatu.
- ★ **Egunero finko joango den ikasleari**, jangelan geratu ezin duen egunagatik deskontatu ahal izango zaio, baldin eta bezperan 13:00 aurretik oharra idatziz eta sinatuta idazkaritzara ekartzen badu edo e-maila bidaltzen badu: usurbil@ikastola.eus helbidera. **Deskontua ez da aplikatuko irteeran kasuan**, hileko prezioan (H4 eta H5) kontuan hartuta baitago lehendik.



- ★ **Aldian behin** jangelan bazkaldu nahi izan ezkeru, bezperan **13:00** baino lehen idazkaritzara deituz egin daiteke.
- ★ **Jakinarazten** dizuegu, 2005-2006 ikasturtean Artezkaritza Kontseiluan erabaki zela, ikasturte osorako jangela zerbitzuan izena emanda dauden erabiltzaileak baja eman ezkeru, zerbitzuaren kostu errealagatik likidazioa egingo zaiola.

GARRAIOA

- ★ **Datorren ikasturterako** autobus zerbitzuaren **kostua 50,00 €** izango da.
- ★ **Goizean zerbitzu bakarra eskainiko denez, HH eta LH-ko ikasleak goizeko zaintzan egongo dira 9:00ak arte.**
- ★ **Gure helburua**, garraio-zerbitzua erabiltzeko eskaera luzatu duten guztioi zerbitzua ahalbidetzea izaten da.
- ★ **Ikasturtean zehar** autobus zerbitzuaren erabilera egokia bermatu ahal izateko, garraioaren erabileraz bidali zitzaizuen galdera-orrian baiezkoa eman zenuten erabiltzaileei eskainiko zaizue zerbitzua.
- ★ **Izena eman ez zenutenek** idazkaritzarekin harremanetan jarri eta plaza librean arabera kudeatuko da.



2021/2022 ikasturterako ordutegiak:

GELTOKIAK	GOIZEZ		ARRATSALDEZ	
	MIKROBUSA	BUSA	MIKROBUSA	BUSA
Aginaga	8.10	-	14:10	-
Zubieta kaxkoa	-	8:05	-	14:10
Kalezar	8:15	-	14:15	-
Ikastola	8:20	8:20	-	14:25

- **16:30etako zerbitzua** autobus bakar batean egingo da.

- 🚏 **Astelehen, asteazken eta ostiraletan:** Zubieta – Aginaga
- 🚏 **Astearte eta ostegunetan:** Aginaga – Zubieta

Ikastolara noa autobusez pozik eta alai!

Hona **autobus erabiltzaileen araudia**:

1. **Geltokian** behar den ordurako egongo naiz, espaloian edo galtzadatik kanpo. Geltokira iristean ere arau berdina errespetatuko dut.




2. **Garraioa gelditu arte** eserita mantenduko naiz; altxatzean, nire gauzak hartuko ditut.
3. **Autobusean eserita** joango naiz eta segurtasun uhala jarrita; zaintzaileei kasu egin eta ikaskideak eta instalazioak errespetatuko ditut.
4. **Garraiatzerakoan ez** dut ezer jango edota edango, autobusa zaintzen eta txukun uzten saiatuko naiz.
5. **Garraiora sartu eta irteerakoan** poliki, lasai, txandak errespetatuz eta bultzatu gabe ibiliko naiz.
6. **Gidaria** lasai utziko dut. Eserita egin daitezkeen jolasak egingo ditut edota hitz egiten jardungo naiz.
7. **Ikastolan autobusa galduko banu**, autobus zaintzailea nire familiarekin telefonoz harremanetan jarriko da nola jasoko nauten argitzeko.
8. Egunen batean **etxera bueltatzeko autobusa erabili** beharko ez banu, nire familiak autobus zaintzaileari abisua pasako dio.



Jarrera egokia ez bada, eta gurasoek hiru abisu jasotzen badituzte, Artezkaritza bilduko da eta autobusetik kanporaketa proposa dezake.

Txostenaren informazioa lagungarri izango zaizuelakoan,
Besterik gabe, jaso ezazue nire agurrik zintzoena, eta opor onak izan!



Mariaje Imaz Urrutikoetxea



UDARREGI IKASTOLAKO Zuzendaria

Gazteleraz irakurri nahi baduzu,
Para leer en castellano,

